

## ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

### Onomasticon Vasconiae, 22

*Ermua, 2002-V-23*

*Bilbo, 2002-V-24*

*Carlos Totorika,*

*Ermuko alkatea*

Arratsaldeon danori eta Ongi etorri **Ermua-Eitzagako: Leku-izenak** liburuaren aurkezpen honetara; baina harrera espeziala egin nahi deusuet eta eskerrak emon hemen egoteagaitik:

FERNANDO ARANBERRI, lanaren egileari, JOSE LUIS LIZUNDIA, euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiko gerenteari, ANDRES IÑIGO, euskaltzain oso eta Onomastika batzordeburuari, MARI ASUN ARDANZA kontzejalari eta Ermuko Udaleko Euskera batzordeari.

Zuori danori eskerrak emoten deusuedaz egin dozuen behar guztiagaitik.

Baina ez neukez ahaztu nahi inundik be gure historia hurbila ondino bizirik daukien ermuarrak; liburu hau egitea posible izan bada eurei esker izan da-eta, euren aurrekoei entzundakoak kontatu eta transmititu deuskuezalako.

Badakizue Ermuaren kasuan jendearen memoria bizia oso inportantea dala, hemen geratzen jakuzan dokumentu idatziak eta balio historikodun edizio eta lekuak gitxi diralako.

1794ko Konbenzino Gerran gure historiaren zati handi bat galdu egin zan, frantsesek herrian egozan 86 etxetik 82 erre ebezanean. Gero, Gerra Zibilean udal artxiboak galdu egin ziran barrero be, eta XX. mendeko 60 urteetan, herritar-kopurua eta industria ikaragarri hazi ziranean, balio historikodun edizioak ez ziran bat be erresetatu.

Horregaitik, danagaitik, da hain inportantea gaur aurkezten dogun liburu hau.


Esquetan daukazuen liburu gaucha txikien historia da, baina horrekin batera, gure aitita-amamen, euren kulturearen eta bizimoduaren historia be bada, eta azkenean, geure historia.

Badakigu iragan hurbila ikusteko bi modu dagozala: bata gure historia markatu dabene gertakari handiak kontuan hartzea eta bestea, eguneroko bizi-moduan —erlijioak, konstunbreak, familiak eta abarrek kondizionatuta— agertzen diran detaile txikiei begiratzea; horrek ez dabe aldaketa sozial handirik ekarri, baina bista-bistan lagatzen ditu gure herriaren sentimenduak eta gauzak egiteko modu ona.

Toponimiak, herriaren kulturea oinarri hartuta, leku-izen diferenteen jatorria eta esanahia aztertzen dau.

Oraingoan gainera, herriaren antxinako kulturea berreskuratu nahi dogu, zati handi bat euskerea dan hizkuntza aberats eta pluralaz adierazita dago-eta.

*Betiondo, Ureta, Elorreta, Urko, Torreta, Arrako, Sinko, Txantxiko, Orozko, Motxu, Santuko, Komentukoa, Antonatxa* eta beste izen asko gure herriaren egitura historiko eta sozialaren zati inportanteak dira.



Ermuarrok etorkizunari begira egon behar dogu eta soziedade zabal bat eraiki, denborearen aldaketea, kultur-aberastasuna, dibertsitatea, eta aurrera-pauso ekonomiko eta sozial guztiak onartuko dituana.

Halandabe, etorkizuna oparoa izateko derrigorrezkoa da bere oinarriak sendo eta ondo zainduta eukitzea, eta horretara dator hain zuzen be liburu hau. Gure iragana onartu egin behar dogu, eta harro egon gainera, gure herria bere sustraiak kontserbatzeko gauza izan dalako, eta horrela erakusten dau gainera gu danok gaur hemen alkartuta egoteak, ikuspegi diferenteetatik bada be, iraganagaitik interesa badaukagula agertzeko.

Orain M<sup>a</sup> Asun Ardantzak, Kultura Kontzejalak, berba egingo deusku.

